

Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko maiatzaren 6a / IV. urtea / 126. zenbakia

Lurra deika

Agoztegieta, Urraiturri, Errugugaitzuru, Laureieteta, Ehuntzealdea... Ez dira Leitza edo Etxarri-Aranazko dermioak, ez eta Erratzu edo Esnazuko aurkientzak ere. Iruñean bertan zeuden, aspaldian erdaldundu zen Iruñea honetan, eta nahiz eta egun galdurik izan, Patxi Salaberri ikerleak berreskuratu egin ditu hiriburuari buruz egin duen toponimia lanean. Bertan bostehundik gora toponimo bildu ditu, eta haien etimologia eta kokapena argitu ditu gehienetan. Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikerketa saria jaso berri du urte asko eskatu dituen lan honek, eta Jose Maria Jimeno Jurioren laguntzarekin luraren deia aditu eta interpretatuta daukagu ia oso-osorik.



Begi itxi-irekia

MATIAS MUJICA



Aingerutan hil

Aingerutan hil da, euskaraz hala esaten da ume bat jaio orduko, mundurik probatu gabe hiltzen denean. Aingerutan hildako umeak, Jainkoari esker, gero eta gutxiago dira, zientziaren abantzamendu miressgarria medio. Oraindik batobat eskapatzen zaie, ordea; Ikustazue, bestela zer gertatu zaion Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilera Arautzen duen (zuen?) 70/1994 Foru Dekretuari. Ongi tristatuta behar du haren aitak, ikusirik bere izendatzaileek nola daukaten ia itoan bere

ume errukarria, aingerutan hilazteko zorian. Radikalegia, omen, umea, aingerutan hil beharra. Eta hara: farregurea ematen du. Ez dakit, edukazio txarrekoa izango da sobrare hori esatea hain momentu larrietan, eta hileta batean algara zakarra eskapatzea bezala (hileta, gainera, ume baten), baina zer egingo diot, farregurea ematen dit, eta ez dut nolanahi utziko aprobetxatu gabe bizitzak farre egiteko eskaintzen dituen apurretako egokiera bat. Izan ere bizitza ez baita egunero festa; franko elkar-iduri eta as-

pergarri joaten zaizkigu egunik gehienak. Baina inoizka, ordea, Bizitzak ere izaten ditu halako ironia finezko ateraldi majistralak, hauxe bezalakoak: zer izango dekretutxo, eta radikala. Edonori eguna pozteko adina bada hori, bai jauna.

Bai, badakigu farre partez negar egin behar genukeela, gauza

triste askoa baita ikustea euskararen alde (aldexko) egiten diren fiskeriarik itikienak ere zer harrera duten agintariengandik (eta, gu beldur, nafar gizarteagandik jeneralean, larriagoa baita), baina begira, aspertuta egoki gu negarrez, farre egin nahiago: radikala.

Garai batean euskaldun herrietan 'osasuna enkomendatzeko' esaten omen zitzairen hiletan hilaren familiakoei, hau da: osasuna opa zitzairen beren hilaren arima Jainkoari enkomendatzeko beta izan zezaten. Hildakoa umea

bazen, berriz, 'zorionak' omen zen ohizko formula, batere ironia edo krudeltasunik gabe, gainera: Umeak bere mundualdi laburrean ez zuen izango bekatu egiteko betarik; zerura joango zen zuzenean. Horregatik ziren gurasoak zoriontzeak.

Orduan, bada, zorionak Hizkuntza Politikako Zuzendaritzari bere dekretu aingerutan hiltzear dagoenagatik, eta osasuna beste bat enkomendatzeko, baina ez hain radikala, ez! mesedez. Radikalek, bistan da, fin txarra egiten dute. Gartzelan ere bai, maiz.

ZINEMA



'Bandera beltza' izeneko pelikula botako dute gaur, maiatzak 6, Etxarri-Aranazko Aralar Zinemaren, herriko Udaberri elkar-teak antolatutako duen euskarazko filmeen zikloaren barruan. Gaueko 22.00etan hasiko da emanaldia eta sarrerak 350 pezetan salduko dituzte.

'Sneakers' filmea eskainiko dute heldu den ostegunean, maiatzak 12, Tafallako zinemaren. Herriko Kultur Patronatuak antolatuta, bi saiotan botako dute, arratsaldeko 20.00etan bata eta gaueko 22.30etan bestea. Sarrerak 200 pezetan salduko dituzte.

MUSIKA



'Sorotan Bele' eta 'Dut' musika taldeek kontzertua eskainiko dute larunbat honetan, maiatzak 7, Saran. Musika emanaldia arratsaldeko 20.00etan hasiko da, herriko plazan.

Mikel Elizaga. Antonio Sagastibeltza eta Mintxo Gartxitoren musikariek kantaldia eskainiko dute asteazkenean, maiatzak 11, Iruñeko Arrano Elkar-tean. Arratsaldeko 20.30etan hasita, sarrera libre da.

IKASTAROAK



'Rock-a eta literatura' izeneko ikastaroa hasiko da bihar Iruñean, GITE elkarteak eta Arturo Kanpion euskaltegiak antolatutarik. Hiru saiotan izanen da; bihar lehena, maiatzaren 14an bigarrena eta maiatzaren 21ean azkena, hirurak goizez. Edorta Jimenez, Itxaro Borda eta Mikel Hernandezek emanen dute eta matrikula egiteko nahiz informazio gehiago lortzeko elkartera deitu behar da, 22 59 91 telefonora.

BESTELAKOAK



Unibertsitateko Finantzaketari buruzko mahaingurua izanen da gaur, maiatzak 6, NUPeko 4. gelan, eguerdiko 12.00etatik aurrera. Zabalik taldeak antolatutako du, eta hizlariak hauek izanen dira: Jose Gines, Valentziako Hezkuntza sailburuaren aholkularia; Luis Cru-chaga, NUPeko gerentea; Juan Cabases, NUPeko irakaslea; eta Jorge Nieto, Enpresa Zientzietako fakultateko dekanoa.

Partehartzea eta Elkartekide-tzari buruzko mintegia antolatuta du biharko Nafarroako Gazte Kontseiluak. Goiz eta arratsaldeko ordutegiarekin, parte hartu nahi dutenek deitu besterik ez dute, 23 48 19 telefonora.

NAFAR KRONIKA

GAIZKA ARANGUREN

Itoitzen Klitorisa

Itoitzeko urtegiari buruzko burutazioek sexualki asaldaten naute. Ekidiezina. Izenak berak duen indar kiligraria izan daiteke errudun, baina urtegiak sortu duen eztabaidaren historioak eta bere pertsonaiek ere, badute eszitatzen nauen ezer. Urrobi, Irati, Nagore eta Itoitz har genitzake historio honen perso-

gedian gertaera arrunta. Hain arrunta ez dena, Europar Batasunaren instituzioek helarazi behar zitzaizkien txosten instituzionalak epez kanpo bialtzearena da. Urtegiaren Aurkako Koordinadorak aldiz, ez du aukera bat bera ere galdu, eta 'El Toro' Hotelean orgia polita izan zen. Denek ez zuten orgasmoa atze-

leak erran zuenez, Felipe Gonzalezek Itoitzeko erabaki politikoa zela argi utzi du. Orduanik, Mugimendu Sozial aunitzek eta Estatuko ekologista guztiek Itoitzen aurkako jarrera hartu duten arren, urtegia eginen ez denaren aldarrikatzaileek zeregin gutxi eta irabazteko aukera nimoak dituztelakoan nago. Eta kronika



naia nagusi gisa. Pertsonaia pasiboak noski. Bertzeek erabakiko dutenaren zain gelditzearen aukera soila dutenena. Borreroen aizkora lepora noiz eroriko ote zaien itxoiaren dutenak. Duela gutxi, ipuin dramatiko honen bertze kapitulu bat bizi ahal izan dugu. Borreroetako batek, Aragon jaunak, aizkora hartu eta bere buruz bertze egin du. Ez lagunena batek hala aholkatu diolako, iragan ustelaren kiratsak inguratzen zuelako baizik. Pertsonaie-tako bat hil zaigu bada. Edozein tra-

man, baina Alli eta Beaumontarren arteko laztanketa xeratsuk zererranik eman du.

Bien bitartean, lanak ez dira eten. Zer gertatuko da Europar Elkar-teak Itoitzen urtegiaren egitasmoa bertan behera uztearen erabakia hartzen badu? Azken finean, urtegia bultzatzen ari direnek kontutan al dute hori? Alli, Borrell, Felipe Gonzalez, UNP, PSN, UAGN, Diario de Navarra... Guzti horiek, hori gerta daitekeela kontutan dute? Ezezkoan nago. CODAko bozerama-

honen izenburuan zergatiari lotuko natzaio amaitzeko. Itoitzek bi klitoris izan ditzake. Lehena, aintzinekoa da, betidanikoa, naturala, hezea, urtsua, bizkorra bezain malgua, tamainuz aldatzen dena: eskualdea zeharkatzen duen Irati ibaia. Bigarrena, 'moderno' baino, posmoderno, berria, artifiziala, zurruna, aldagaitza, lehorra (lubrikaziorik gabekoa alegia), eta kontrolatua: Agoitzerako sarrera naturalean eraikitzen ari diren presa. Aukera libre da Andre-Jaunok.

ASTEKO PERTSONAIK



Enrique Martin
Osasunako entrenatzailea

Ez da, ez, ustekabea izan Osasunaren porrota. Azken aste hauetan Erraz aski iragar zitekeen amaiera iritsi da eta, tristura sentitu badugu ere, ezin zaio errua kanpoko inori bota. Lehen mailan hamalau urte egin eta gero, bigarrenean jaitzi da Osasuna, aurtengo denboraldia bukatu ez arren, matematikak garbi azaltzen digunez. «Tristura izugarria sentitzen dut. Hala ere, Liga amaitu arte profesionalak izanen gara. Jaitzierari lasi egin behar diogu aurre, heldu den urtean Lehen Mailara itzuli ahal izateko», azaldu zuen Enrique Martin entrenatzaileak. Urtarrilean hasi eta maiatzarako taldea bigarren mailan zeukan Martinek, baina ezin zaio erru guztia berari bota, jokalariek ere badute berena. Helburua garbia da, ahal den lasterren Lehen Mailara itzultzea.



Ricardo de Leon
Gizarte Ongizateko sailburua

Ricardo de Leon Nafarroako Gobernuako Gizarte Ongizateko sail-bura agertu da aste honetan Parlamentuan, bere anaiaren enpresak Gobernutik faborezko tratua jaso zuenentz argitzeko. Iruñeko Gobernuak 1.427 milioiko adjudikazioak eman zizkion Irati enpresari, Agustin de Leon bertako kudeatzailea zelarik. Alliren taldeko sailburuak azaldu zuen «txantaia, mehatxuak eta presioak» jasan zituela enpresari baten aldetik eta, nor zen ongi jakin arren, ez zuen salatu. Datu ugari eskaini zituen adjudikazioak behar bezala eginak zeudela argitzeko; hori bai, batean «hutsegite formala» zegoela esan zuen De Leonek. Beste alderdientzat, gauzak ez ziren garbi geratu eta ikerketa batzordea osatu eta informazio gehiago behar zutela esan zuten.

AHAZTU GABE!

ELKARTASUN JAIA



Elkartasun Jaia ospatuko da gaur Lizarran, Los Llanos izeneko tokian. Abriquemus Bosnia eta Rumaniarekin Elkartasuna taldeek antolatuta eta Mugarik Gabe gobernu kanpoko erakundearen laguntzarekin, ekitaldi ugari izanen dira egun osoan. Ateratzen den dirua zenbait proiektu finantzatzeko erabiliko da; horien artean, Malñ eraikiko den ur putzu bat, Zaireko Kinshasa ospitalerako materiala erostea eta Mugarik Gabek Iruñetik bultzatzen dituen lan batzuek laguntzea. Goizetik, txistulariak, 'Ruiz Etxeberria' gaiteroak, 'El Puy' tuna, rondalla, txaranga bat, Shambu Teatro taldea eta Larrantzar dantza taldea ariko dira. Kartel lehiaketako sari banaketa eginen da, eta bidaiaren zozketa. Arratsaldean, Danza Conchera Peruko taldea, Eunete dantza taldea, Terral —Txileko musikariak— eta Flamiz taldea izanen dira protagonistak. Egun osoan haurrentzako jo-koak, tailer artistikoak, eskulan erakusketa eta 'Esklabutza eta Arrazakeria' erakusketa zabalik izango dira.

JENERO XUMEKOAK

Bombolentena

Bombolentena, nere laztana, ez egin lorik basoan, ehiztaritxoak eramango zaitu erbia zarelakoan.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Nekazari Ekologistaren Eguna

PATXI ULAIAR / IRUÑA

Igande honetan ospatuko da Ezkarozen (Zaraitzu) Nafarroako Nekazari Ekologistaren Eguna, Bio Lur Nafarroa elkarteak antolatuta. Egun honen bidez azken urteotan gorakada handia izan duen nekazaritza mota honen dituen ezaugarri eta abantailak azaldu nahi ditu elkarteak, eta hainbat dogma ezabatu.

Ospakizunak goizeko hamaketan hasiko dira, bertako Ibarren Etxean, eta Nafarroako produktu ekologikoekin prestatu den erakusketarekin. Zenbait diapositiba ere ikusi ahal izango dira. Eguerdian, mintzaldia izango da Nafarroako Gobernuko ordezkari eta nekazaritza ekologikoko elkarten partaidezarekin, gai nagusi batekin: 'Nola garatu behar da Nafarroan nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa?'. Ondoren produktu ekologikoekin egindako bazkaria izango dute partaideek Orontzeko Salazar ostatuan, eta arratsaldean inguruko azientzara bisitaldia egingo da.

197 hektarea biltzen dituzte egun Bio Lur elkartearen barruan dauden nekazari eta abeltzainek, eta horietariko gehienak abeltzaintzari eta laboreari zuzendua daude. Hala ere, badira ere barazkiak eta fruta ekoizten dituztenak eta, hain zuzen ere, fruta ekoizteko azientzak dira gaur egun beharrezkoenak, eskaintzak ez baitu eskaera betetzen. Nekazaritza ekologikoa arautzen duen Jatorri Izenaren Kontseiluan sartzeko zenbait arau bete behar dira —epkakako prozesua, instalakuntza egokiak—, eta bi

Donibane Garazi

Abere hiltegiak osatu den sindikatuari esker iraunen du

LE. / BAIONA

Donibane-Garaziko abere hiltegiak iraungo duela ziurtaturik da gaur egun, honen ixtearen arriskua baztertu ondoren. Hazkuntzak toki premia duen eskualdearentzat honen izatea puntu inportantea da.

Joan zen apirilaren 19an Donibane-Garaziko Herriko Etxean sortu zen herrien arteko sindikatu berezia ukango du biltegi honen ardura. Iazko udaberrian, Garazi, Baigorri eta Iholdiko kantonamenduetako auzapezen bilera egin zen, SIVU, 'Helburu batekilarako herrien arteko sindikatu' baten eraikitzeke. Honen helburua zen urtean mila tonaren tra-



Nekazaritza ekologikoa Iruñeko baratzetan hasi zen Nafarroan.

ALBERTO BARANDIARAN

urteko birmoldaketa izan behar dute aurretik azientzek, lurrari ere egokitzeko parada emateko.

IRATIRI BURUZKO IKERKETA

Baina ekologia ez da izango Ezkarozek asteburu honetan izango duen ekitaldi bakarra, gaur bertan aurkeztuko baitu Cederna-Garalur elkarteak Iratiko erabilera turistikoari buruz egin duen ikerketa. Lanaren aurkezpena inguruko erakunde eta herritarrei dago zuzenduta, eta debate publiko bat sortu nahi da. Lanaren beharra iazko udan planteatu zuen Cederna-Garalur elkarteak eta Aezkoako eta Zaraitzuko ibarretako juntek begi onez ikusi zuten. Lana burutzeko Nafarroako Gobernuaren lankidetzara ere izan du elkarteak.

Lan honetan jasotako datuen arabera, 1993ko uztailaren 31tik irailaren 6ra bitarte 30.000 mila bisitaritik goitik bisitatu zuten Irati, eta gehienak euskaldunak ziren. Ondoren, madrildarrak eta kataluniarrak. Gehienak kanpalekuek izan ziren, eta ondoren landetxeak dira ostatu aukera-

tuenak. Otsagabia da tokirik preziatuena eta ondoren Orbaizeta. Bisitariei egindako galderen arabera, natura, lasaitasuna eta inguruaren edertasuna dira gauzarik erakargarrienak, eta beste muturrean, ibilgailuen ugalketa, jende pilaketa eta zikinkeria dira azpimarratzen diren alde txarrak.

Basaburua

Kultur Astea arrakasta handiz egin da apirilean

BERUETE

Irkaitez taldeak antolatutako Kultur Astea arrakasta handiz egin zen joan zen apirilean; ekitaldi anitzekin, eta jendearen partehartze handia zela. Egitaraua apirilaren 16an hasi zen, gaupasa batekin. Egun berean ere herri kirolak eta artisauek izan ziren. Halaber, Haurren Eguna ere izan zen Beruete, eta bailarako 70 bat haur bildu ziren Popi eta Zaratrako pailazoen inguruan. Giro ona nagusi izan zen egunean zehar, eta amaitzeko txokolatada eskaini zitzaizkien haurrei.

Igandean, maiatzak 1, Adinduen Eguna ospatu zen Beruete bertan. Mezaren ondotik 60 bat

lagun bildu ziren ostatuan, bazkaria egiteko, eta bertso saioaren ondotik, trikitilariak giroa alaitu zuten. Ez zen giroa gehiegi alaitu beharrik izan, hain zuzen ere, aiton-amonak berandu arte aritu baitziren dantzan jo ta ke. Egun berean ere, eta ohizkoa den bezala, omenaldia egin zitzaizkien adinduei, eta aurten Beruete Estefania Urtxipia eta Orokiatoko Joxe Oiz izan ziren omendua. Egitarauaren aurrekontua eta antolaketa lanak Irkaitez taldeak eraman zituen aurrera, zenbait herritarren laguntzarekin.

Euskara Batzordeak autobus antolatu ditu Senperen asteburu honetan ospatuko den Herri Urrats jairako, eta nahi duenak hor izango du informazioa.

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Eestee... zaunk

Nola egiten du zaunka Argentinarako txakur batek? Bada, «eestee... zaunk». Txiste zaharra da, 'Mistetas' deituriko txakurraren txistearen garai berekoa. Haatik, 'Mistetasena' ez bezala, litekeena da Hego Amerikako txakurraren txiste aurki berriro ere modan egotea. Izan ere, badatoz, hemen daude jada... Gardelen jarraitzaileak! Nafar-mexa hiltzear dago —Navarrieriako iturritik gertu, Zuriza tabernan elkartzen zireten Huajoloteei doluminak—, gora tango nafarra!

Buruan dut oraindik ere Kojon Prieto y Los Huajolotesen lehen kontzertuetako bat. Gavilan —garai hartan artean Eskroto zena— Mexikotik bueltatu berria zelarik, 1992. urteko udako gau batean, Lore Etxean —adi, Lore Etxea II bihar jaiotako daiteke eta— jo zuten zortzi bat Huajolotek. Kontzertua mundiala izan zen, eta Navarrieriako Iturriko inguruetatik Argako ibarreko etxera jaitsitako lagunak aho-zabalik geratu ziren ikuskizun iraultzaile haren aurrean.



Joan den igandean kasik jende bera elkartu zen Donibane auzoko Katuska tabernan. Norberto Dekadencia taldeko abeslari ohia kantari aritu zen bertan. Ez dut gezurrik esanen. Dekadencia dekadente baino dekadenteagoa iruditzen zitzaizkien, eta ez nuen talde horren abeslari ohiaren gaudik gauza gehiegirik espero. Rock erradikala abestu ordez, baina, tangoak kantatu zituen, eta trebezia handiz gainera. Ikusentzuleak duela bi urte bezain aho-zabalik geratu zen, «Garufa, vos sos un caso perdido» entzuten zuten bitartean.

Adi, beraz. Enroilatu izan nahi baduzu, txe —ez txo—, zokora ezazu tekila botila, kentzazu Zapataren posterra gelako hormatik, eta erre ezazu mexikar kapelela. Bidenabar, has zaitez matea edaten, eros ezazu Che Guevararen posterra, eta lor itzazu Panpan behizain aritzen diren horiek ibiltzen dituzten txanoa eta boleadorak. Oihuka ezazu ozen: eestee... Flaco Jimenez is dead, txe boludo, gora Carlos Gardel!

GOIZANE

JATETXE BEGETARIANO

Irunlarrea kalea, 6-8 (Urgentzien aurrean),
Virgen del Camino Ospitalea Tf: 948-26 39 27 IRUÑA

Te areto integrala

Nafarroako hiriburuari buruzko toponimia lan bilketa bukatu berri du Patxi Salaberri ikertzaileak, Jose Maria Jimeno Jurioren laguntzarekin. Bertan bostehundik gora toponimo bildu dituzte, biziak zein desagertuak, eta haien inguruko etimologia eta datu zenbait azaldu dituzte. Esan daiteke Iruñeko aurkientza guztiak daudela bertan jasoak.

Izenari izana

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Toponimia «deika ari zaigun lurra» dela esan zuen behin Jose Maria Jimeno Juri Nafarroako toponimia biltzaile nagusiak, eta dei horren atzetik lurraren baitara bildu direnak asko izan dira bere ondotik. Azken urteotan inoiz ez bezalako ospe eta estima hartu du perretxikoak zoitien azpiko bilaketarekin antza handia daukan jarduerak, eta argitalpenak ere zizak eurria egin ondoko ugalketaren tamainean heldu dira. 1990ean kaleratu zen 'Nafarroako Euskal Izendegia', Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernuaren eskutik, eta bi urte geroago hasi ziren azaltzen 'Nafarroako Toponimia eta Mapagintza' izeneko saileko liburuxkak. Nafarroako alde oroko toponimia txikia bildu nahi du-

Hirurehunik gora orrialde eta bostehundik gora toponimo, gehienak euskarazkoak, biltzen ditu lanak.

tenak. Bitartean, Euskaltzaindiaren 'Onomasticon Vasconiae' izeneko saileko aleek ikusi dute argia, eta horren lekuko da Patxi Salaberri eta Jimeno Juriok aterri berri duten lan hau, sail honetan argitaratuko baita.

Argitalpen sobera, antza, inoiz ez bezalako normalizazioaren beharra duen arlo batendako, baina lanak erabat ezberdinak direla azpimarratzen du Salaberri. «Nafarroako Toponimia eta Mapagintza» liburuxketan soilik toponimia bizia biltzen da, eta dokumentazio gutxi samar dago, aski laburki. Gurea, ordea, ez da toponimia bakarrik, Iruñean mintzatu diren hizkuntzez ari gara hor, eta biltzen dira berri pila hemengo euskarari buruz». Tamaianaren aldetik ere franko bestelakoak dira lanak. Batean Iruñeak orrialde gutxi batzuk baino hartzen ez baditu ere, beste hirurehunik gora betetzen du.

BOSTEHUNDIK GORA TOPONIMO Hirurehunik gora orrialde, eta bostehundik gora toponimo, gehienak

euskarazkoak. Gaztelaniatik datozenak urri, eta, ezaguna delarik, bederen, bakar bat frankoa: 'Arrotxapea', *roche*-tik (harkaitza) omen datorrena. 'Txantrea' galoerromantzetik datorrela irizti diote adituek. Ez da, baina, mairuek edo juduek utzitako toponimorik. «Juduen toponimorik ez ohi da aurkitzen Nafarroan, baina bai mairuenak, batez ere Tuter aldera. Hala ere, ez dago jakiterik bertako arabiarrek utzitakoak ala erdararen bitartez (arabismoak) sartutakoak diren».

Nolanahi ere, ezin ukatu, nahasmendu franko izan da eta oraindik bada hainbat toponimiari buruz. NAFARKARIAREN orrialde hautetan Mikel Belasko Nafarroako Gobernuko toponimia taldeko koordinatzailea ahalegindu zen batzuk argitzen, baina ohiturak franko errotuta daude askorengan. Nola ulertu, bestela, zenbait izenekin dagoen nahasmendua?: Belagua-Belagoa; Bi Ahizpak-Atxitarte; Errotxapea-Arrotxapea... Salaberriren ustetan, nahasmendua oraindik aztertu gabe dagoen informazio guztiari leporatu behar zaio, etengabe sortzen baitira datu eta toponimo berriak. «Artxibategian dokumentazio asko dago, eta urteak eman ditzakegu dena begiratu arte, eta, hala ere, beti ateratzen dira berriak».

Egoera hau 'normala' dela dio hizkuntzalariak, eta aurretik egindako okerrez mintzo da. «Normala da gurea bezalako hizkuntza eta egoera batean. Herri izendegia berritzeko dago, eta batzuk gaizki daude, hanka askotan sartu dugulako. Material asko ez genuen ezagutzen, eta orain sortzen ari da. Horrek gauza asko errebisatzera garamatza». Arzoa korapilatsua da, horietako izen batzuk dagoeneko ofizialduak direlako. «Adibidez, orain ohartu gara Zolia dela euskarazko izena eta ez Zolina, eta gauza bera gertatu zaigu Urdaotzekin, Urdanotz jarri baikenuen hasie-

Toponimo bartzuekin dagoen nahasmendua aztertu gabe dagoen informazioarengatik sortu da, etengabe azaltzen baitira datu berriak.

ran. Izen horiek guztiak orain aldatu beharra dago».

IRIZPIDE FINKOAK PARATUTA Hemendik aurrera okerrak egiteko aukera txikiagoa izango dela sinetsirik dago Salaberri, «irizpide finkoak paratuta daudelako. Orain, material guztia izango bagenu, irizpide ortografikoekin eta linguistikoe-kin, erabaki definitiboak hartzera helduko ginatke. Baina materiala biltzen ari gara oraindik, dokumentazio asko dagoelako begiratzeko».

Nafarroan berean desberdintasunak badira, izan ere, zonen arabera, eta iparraldea aberatsagoa izan ohi da, dermioak anitzagoak direlako. «Baserriak dituen inguruak biltzen ohi du toponimo gehien». Erriberan, ordea, kilometro puska biltzen duen dermio


Batzuetan ez dute onartzen adituek proposatutakoa, eta besteetan erakundeek ez dute erabiltzen berezko izena.

bakar bat izan ohi da ohizkoena. Halaber, zailtasun handiagoa eskatzen du euskal toponimoak biltzek, frankotan ezkataturik daudelako. «Orain erdaldundu berri diren eskualdeetan, toponimoak itxuragabetu dira, eta jakin behar da zer zegoen azpian, eta noraino ailegatu behar dugun. Adibidez, XVI. mendeko toponimoa aurkituta ere, akaso ez digu balio, urrun gelditzen zaigulako». Euskaldun eremuetan, itxura aldatu dute toponimoek, baina euskararen indarrez. «Eskolarik ez izateak» dio Salaberri «eta euskara dialektalizatua izateak izan du eragina honetan».

ASKOREN ERABILERA OKERRA Arazo franko, beraz, toponimia egokia zein den erabakitzeke, eta traba handiak, ez bakarrik arazoari dagokionez, baina baita kanpotik egiten den erabilerarengatik ere, batez ere toponimia handiarekin, hau da, herrietako izenekin. Batzuetan udalek ez dute onartzen urteetan egindako lana —Iruña izena erabaki zuen Udalak Euskaltzaindiak Iruña proposatuta ere—,



Goian, Arga inguruko paseabidea, Magdalena auzoan. Ezkerrean, Irubide, Txantrea, eta behean, Etxabakoitz, Iruñerriko auzo berrienetako bat. JOXE LACALLE



Argazkia

● Indarra galdu dute irudiek eta jadanik ez gaituzte mintzen. Pulitzez bezalako sariaren irabazleak zerbait gehiago harrapatu behar zuen bere objektiboan, beraz. Ez da aski ez, indarririk ez zela lur jo duen haurraren irudia; gehixeago behar da 'épatante' izango bada.

Azala gogortu zaigu eta kru-deltasunaren eztenak hausten dira mundu garatuko epidermisarekin topo egitean. Sabel puztuek, ortzimugan galtzen diren begiek, gizaki baten karikaturrak diruditen gorpuzkerak ez dute kasik errukirik sortzen. Haur beltzen espainak miatzatu eta haien heguez betazal eta sudur zuloak laztantzen dituzten eulitzarren irudiek, ez gaituzte lehen bezala mintzen. Hirugarren munduko hauren argazkien ziztadek aspaldiak ez

dute 'touché-rik' eragiten mendebaldeko bihotzetan. Zeluloidezko gezurra ematen dute.

Urteko argazkiaren protagonistetarikoa bat, ordea, jaio bezain pronto ohartu zen zahartzaroaren bidea zuela harturik eta bere jolas guztiak sabeleko zorriak nola isilarazi zutela helburutzat.


Urrunegi potitoak, urrunegi dodotisak. Ezerezaren kontra borrokatu behar eguneroko. Metro gutxiko zubia haurtzaro eta zahartzaroaren artean zeharkatu behar zuena, eta, hala ere, oina ze mingarri bihurtu zitzaion urrats bakoitza amaren bularrek idortu eta bazka isuritzeari uko egin ziotenetik. Apenas denborarik irri herabeti batzuk marrazteko begi inozoen azpian.

Eta orain, free-lance puli-

tzerdunari esker, begi aitzinean dugu neskattoa, kokoriko, burumakur. Nekez asmatu omen du haurrak oin bat bestearen atzean mugitzen.

Tirriki-tarraka dator, noraezean. Ez du hutsik egin zitarra koadroa osatuko duen harrapakariak. Iragarritako heriotzen kronikaria moztorturik bertaratu da, segarik gabe, aiduru. Bidezi-dorreen barna tikili-takala dabilen neskatoaren pausok ahiu arte itxoin du eta mokoaren gainetik begiratuz, klik egin eta bere testigantza utzi digu.

Putrea lekuko.



Pello Arana Irakaslea

Adibide zenbait

A.B. / IRUÑEA

Hona hemen Iruñeko hainbat izenen etimologia, kokapena eta aldaerak, Patxi Salaberri aukeraturakoa:

AGOTZTEGIETA: Agotz (gariaren lastoa)+tegi+eta. Hau da, lastoa biltzen zen tokia. Salaberri berezko aldaerarengatik aukeratu du. «Polita da 'agotz' aldaera dakarrelako, ohizko San Estebanera zihoan bidean egun galduta dago, baina Burlatako San Cristobal kalean. Arga ibaiaren ondoan zegoen. Irubide parrea, hain zuzen ere.

TXANTREA: Katedralaren barruan zegoen —eta dagoen— maila hierarkiko bati dagokio. «Chantre» izeneko maila zuen apaiz batek», dio Salaberri. «izango zituen lur sailak inguru honetan, eta horregatik Txantrea izen-

mihi+luzer. Etimologia, baina, bestelakoa da. Liburuak jaso duenez, Milutze da izen zuzena, eta milu landaretik dator: hau da, milu asko zegoen tokia.

URRAITURRI: Koldo Mitxelena hizkuntzalariaren ustetan urre+iturri zen izen honen etimologia, hau da, urrezko iturria. Auskalo urrezkoa zelako edo eguzkiak jotzen zuelako. Egun galduta dago, baina Burlatako San Estebanera zihoan bidean zegoen, gaur egungo Txantreako San Cristobal kalean. Arga ibaiaren ondoan zegoen. Irubide parrea, hain zuzen ere.


ERRUGUGAITZURU: Erdi Aroko toponimoa dugu hau, eta ez dago jakiterik non zegoen. Bertan nekazaritzan erabiltzen ziren bi neurri azaltzen dira: errege+gaitzuru. Mitxelenak dio gaitzuru lotuta dagoela 'caiz' izeneko erdarazko neurriarekin.

ERLATEGIETA: Gaur egungo Abejeras auzoan dago. Toponimo zaharra horrela azaltzen da, eta ez gaur egun zabaldua dagoen gaitzuru lotuta dagoela 'caiz' izeneko erdarazko neurriarekin.

GOROABE: Mitxelenak dio 'koroa' hitzetik datorrela, ekialdean oso arrunta dena. Esaten zaio gain biribilari. Gaur egun Jesuitasen azpian dago, eta gain hori, hain zuzen, biribila da.



XAKEAN



Iruñeko Hiria torneo itxiaren zazpigarren ihardunaldiko partida, 1994ko urtarrilaren 3an jokatu.

Unai Garbisu, 2.255 ELOkoa (Euskal Herria)—Jordi Magem, 2.505 ELOkoa (Katalunia).


1.e4,c6; 2.d4,d5; 3.Zc3,g6; 4.Ae3,Ag7; 5.f3,Db6; 6.d5,Db2; 7.gZ-e2,Zf6; 8.c6,c6; 9. Gb1,Da3; 10.Dd2,bZ-d7; 11.Ef2. Endroke lasaia egiteko aukera galdu dute. Joka daiteke, baina erregea erdian geratzen denean, erne egon behar. 11...0-0; 12.Zg3,e5; 13.d5. Baliteke 'Ac4' hobea izatea, erregearen posizioa ez baitago konponduta. 13...Zd5; 14.Zd5,d5; 15.Dd5,Zb6; 16.Db3,De7; 17.Ab6. Ez da egokia. Erregearen posizioa seondtu bitartean, alfil honek defentsa lana ederki betetzen zuen. 17...b6. Ikus Koadroa- 'Ac4' egiteko azken aukera. Txuriak, ordea, galbi-dean sartuko dira.

18.Db6,Ae6; 19.Ad3,f5; 20.hG-e1,e4. Beltzak bizkorak izan dira. Txuriek atzea gordeko zutela zirudienean, beranduegi dela erakutsiko diete (ezin da peoiaz jan). 21.Af1,aG-b8; 22.Db8. Ez zen beste aukerarik. Beltzen 'Ad4' jokaldia izugarri gogorra da eta. 22...Gb8; 23.Gb8 xa,Ef7; 24.eG-b1,Dc5 xa; 25.Ee2,Dc2 xa; 26.Ee3,Dc3 xa. Alfilen eta damaren konbinaketa geldiezina zenez, txuriek etsi zuten. Erregea behar bezala ezkututzen ez asmatzeagatik.

Gogoaren kateak, noizbait hautsiak ote?

Zaharraren baserria, gelditzen ziztaizkion bi alabek eta seme bakarrak eramaten zuten. Bere beste bi semeak eta emakumea mundu honetatik joanak ziren zegoeneko borrokan eta beste alaba bat Martuteneko gartzelan zuen. Bere bizitza monotonoa ahal zuen bezain ongi eramaten zuen eta poztasun txiki eta beharbada txoroekin —animaliren bat zela edo uztaren martxa ona zela— pixkat alaitzen ahalegintzen zen. Berarentzat egurrak, tren-motel batetik igarotzen ziren zuhaitz bezalakoak ziren eta azken geltokira heltzen ari zela gogoan zuen. Martutenera bere alaba ikustera joaten zen, bisitaldiak egitera eta hau, bere bizitzaren monotonia hausten zuen gauzetako bat zen. Bestea, herri ttipira igandetan jeitea zen, bere aintzineko guda lagunekin elkartzera, eta kartetan ziharduten denbora gehiena ddo garai zahar haiez hitzegiten.

Oraindik bere komunista printzipioak mantentzen zituenenez, ez zen joaten elizara igandetan eta horrenagatik pixkat gaizki begiratzen zioten batzuek nahiz eta honek, Guda Handiaren Garaian bere borrokarengatik inportantziarik galdu. Gainera ez zen bakarra, gelditzen ziren gudako lau lagun haiez hitz egiten zirenekin ere horrela jokatzeko bait zuten eta beren seme-alabak printzipio haiekin hezitu zituen ere: 'Bizkaia Maita' tabernara joaten ziren koadrilako bostak eta haien betiko mahaian eta bakoitzak bere betiko eserlekuan eseritzen ziren. Aurrena eguraldiari edo uztari edo baita baserriko lanari buruz ere hitzegiten zuten, eta ondoren beren karta partida jokatzeko zuten.



Igor Arroyo
(BARAÑAIN)



Eusko Gudarien partaideak izateagatik eskertzeko emandako xoxa zahar eta baliogabeak jokatuz. Gero, sagardo edo ardo gorriko edalontziak alboan zituztela haien buruan gordeta jarraitzen zituzten Guda Handiko oroimenak komentatzen zituzten. Nola Baztanen barrena mendietara jo zuten ordenik gabeko taldeak osatuz eta haien geroko Eusko Gudarien batailoan sartzeak... Baita nola borrokatu ziren txaketeroen aurka Durangon, Bergaran, Azpeitian eta Bilboko azken gudan...

Guztien buruan zegoen Gernikako infernua, eskola baten barruan errefuxiatuak nola ehizako fusilez hegazkinen lehergailu hiltzaileei erantzuten zieten. Eta beren

geroko preso garaia, lagun asko afusilatuak izan zirenean eta azkeneko gorputzaren askatasuna, gogoa oraindik ere kateaturik bait zuten. Haiek izaten ziren, bere alaba presoekin egindakoarekin batera, bere zahartzaroaren unerik zorionsuenak, eta ondorengoak, oinez baserri ilargipean itzultzen zenean, zorigaitzokoenak. Betiko bidetik mantso-mantso, makilarekin lagunduz bere zango moztua joaten zenean, galdutako gaztetasun eta bizitasunaz konturatzen zen eta batzuetan, basoko animalia urriak lekuko zituela negarrari ekiten zion. Orain zahar bat zen, traste modukoa zela iruditzen zitzaion eta nahiz eta bere bizitza ahituta zegoenaren pentsamendua bere burutik baztertzeko saiatu hantxe jarraitzen zuen, egoskorra oso. Baina dena hori ez zitzaion beste pentsamendu bat baino beldur eta larritasun gehiago sortzen, hau erotzeko modukoa bait zen berarentzat: bere gogoaren kateak ez haustea, Euskal Herria askea ez ikustea, bere bizitza luzearen azken momentuan.

tzeko modukoa bait zen berarentzat: bere gogoaren kateak ez haustea, Euskal Herria askea ez ikustea, bere bizitza luzearen azken momentuan.

Euskal piratak Mediterraneon

1480. urtean Aragoiko Fernando erregek Sizilia irla galtzeko arrisku biziaren ikusten du, turkoek izugarriko itsasontzi armada prestatu bait dute. Hori zela eta, Baskongadetara armada bat antolatzea bidali zuen bere ordezkaria zen Quintanillako Alonso, 'Bizkaiko jendea itsasoko aferetan oso iaioak bait dira', garaiko kronistaren arabera. Dirua Burgos hirian metatu eta marinela eta ontziak Bizkaian eta Gipuzkoan bildu beharrekoak ziren. Hasieran uko egiten zioten eskakizunari, baina kronis-

taren arabera, euskaldunei turkoek zer egiten zuten kristauekin konstatu bezain azkar, berotu egin ziren, eta 50 itsasontzi hornitu ziren. Sizilia inguruko gerratea bukatuta euskal itsasarmada zitzu bizian Granadara abiatu zen, hortxe gudari gogotsuentzat lan handia zegoen eta. Antza denez, Tornuan baleak harrapatzea baino bizimodu ederragoa iruditu zitzaion Mediterraneoan ontziak hustea, eta kortso geratu ziren Mediterraneoan.

Hona hemen zenbait berri.

JUANTXO URDIROZ



Ez usteak
zure atean joka

Euskal piratarik
garrantzitsuena Pedro
Navarro izan zen.
Frantziak nahiz gaur
egungo Italiak ez izan
zuten menperatu.

1443. urtean Fernando Katolikoak Portugalgo erregeari gutun bat igorri zion kortso bizkaitarrak atxilotuta zeudela esanez. Agerian dagoenez, lanean hasiak ziren urte horretarako. 1445.ean Frantziako Carlos VIII.ak Napoles hiria zukuratu zuelarik, itsasoz bidali zituen bitxi eta edergarriak etxera. Gixajoak ez zuten bizkaitarren berria eta esku hutsik geratu zen. 1446.ean Tiber ibaiaren sarpidea Menaldo Guerra izeneko euskaldun batek kontrolatzen zuen, hortik pasatzen ziren itsasontzi gutzietan zerga bat pagararaziz. 1446.ean ere, badugu 'Nicolo Bonifligio, corsario biscaglino, homo di sorta que fazea tremar tutto el mar de Lion'. (Nikolai Bonifligio, euskal pirata, zori handiko gizona, zeinak Liongo itsaso guziaz izutzen bait zuen). Baina garrantzitsuena Pedro Navarro zen, 'aventuriero biscagli-

no'. Frantzia nahiz gaur egungo Italia aldeko lagunak ezin izan zuten menperatu. Espainako Kapitan Haundiak berak atxilotu zuen. Fernando Katolikoak argia zelako ospea dauka, eta gure gizona urkatu beharrean almirante izendatu zuen eta bere armadan lanean hasi zen.

1508.ean Mondragoiko Peru daukagu lanean. Aurrekoekin konparatuz, honek gauzak berritu egin zituen. Kronistak dio 'corsario a toda ropa' zela, hau da, ez ziola galdetzen biktimari nongoa zen. Calicutetik ontzi bat harrapatu, Baionan etekinak saldu, aberastu, eta Nafarroan barna galdu zen. Inork altxorren bat aurkituz gero, badaki norena den.

Norbaitek informazio gehiago eskuratuz nahi izan balu, ikus dezala 'UN Mediterraneo de Piratas', J. Solaren liburua.

Nafarroan, tamalez, gutxitan erabiltzen da euskara eszenatokiaren gainean. Halaber, erabiltzen denean, haurrentzako antzerki emanaldietan erabiltzen ohi da, besterik ez. Aurten talde bakar bat ausartu da euskara helduentzako antzezlan batean erabiltzen. Padre Moret-Irubide institutuko antzerki taldea da, hain zuzen ere, talde adoretu hori, eta Xabier Mendigurenen 'Zabortegi' taldeak hautatutako helduentzako obra.

Euskara eta zaborra taula gainean



JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

Irubide institutuko ez da Nafarroako euskal talde bakarra. TEN-Pinpilinpaxa, Trokolo, Kollins Klown eta beste hainbat talde profesional ere euskaraz aritzen dira Nafarroako eszenatokitik. Talde horien muntaien xedea, ordea, ikusle gaztetxoak dira, umeak hain zuzen ere. 'On-gietorriak mendebaldera', 'Ali Baba eta 40 lapurrak' eta antzeko antzezlan arinen alboan, astun, sakon eta erakargarri ageri da Xabier Mendigurenen 'Zabortegi'.

Joan den udan, aurten obra bat euskaraz taularatzea erabaki zuen Irubideko antzerkiko zuzendaritza taldeak. Eszenatokiaren euskaraz lehen urratsa emateko, haurrentzako obra erraz baten laguntza nahi zuten. Haatik, Karlos Piñuela taldeko zuzendari laguntzaile eta koordinatzaileak azaldu zuenez, «Xabier Mendigurenen 'Zabortegi' obra hartu genuen esku artean, gustatu egin zitzaigun, eta aurrera egitea erabaki genuen».

Piñuelaren esanetan, Xabier Mendigurenek idatzirik obran «3000. urteko edo batek daki noizko gizartea da aztergai, batetik historikoarenean, eta bestetik etorkizuneko, non gure zibilizazioaren ondorio eta hondakinak ikus daitezkeen». Zuzendaritza taldekideak zehaztu zuenez, «humanizazioa ez da ikusten inondik, eta deshumanizazioa da nagusi, baina hala eta guztiz ere indarkeriak eta sexismoak tinko jarraitzen dute giro horretan». Halaber, «giza taldearen buruzagiaren eta bere semearen arteko boterea lortzeko borroka da

istorioaren ardatza», Piñuelaren aburuz.

'Zabortegi' ez da, beraz, institutuko antzerki talde baten ohizko antzezlan. Ez da betiko eszenografia eta jantziak erabiltzen dituzten horietarikoa. Lan honetan eszenatokia zaborraz betetzen da, eta pertsonaiak oso bereziak dira, deshumanizaturikoak, gogorak. Obra bera, oro har, gogorra da. Horrek, ordea, ez zituen izutu Txantreako institutukoak, eta horrekin lan egitea erabaki zuten. Erabaki horrek, Piñuelak berak aitortu zuenez, zenbait ate itxi dizkie; izan ere, «ikastolaz ikastola ibiltzeko, esaterako, askoz errazagoa litzateke haurrentzako obra bat taularatzea».

Dena dela, dagoeneko hala Iruñerriko hainbat euskaltegietan nola zenbait ikastolarekin harremanetan daude, eta badirudi obra frankotan taularatu ahal izanen dutela. Xede horrekin ekin zioten lan egiteari joan den urteko urrian Eukene Garin, Monica Prieto, Maider Bidaurre, Goizargi Marcilla eta Patrizia Enerit Irubide institutuko ikasleek eta Carlos Piñuela, Iñaki Otsoa eta Tomas Astiz institutuko ikasle ohi eta taldeko egungo zuzendariak.

Zabortegi' ez da institutuko antzerki talde baten ohizko antzerkia. Ez da betiko eszenatokiak eta jantziak erabiltzen dituzten horietarikoa.

'Zaborra' antzezlanaren bi eszena. Bertan taula zaborraz betetzen da eta horren artean egin behar dute lan aktoreek.

Lehenik eta behin, entseiatzeko orduan topatutako denbora arazoak gainditu behar izan zituzten. Irubideko antzerki taldeak aurten, euskarazko obra ezezik, Alfonso Sastreren 'Ejercicios de terror' gaztelaniazkoa ere prestatu du. Taldekideak ez dira profesionalak, ikasleak baizik, eta kurtso berean bi obra prestatzea gogorra izan da oso, entseiatzeko beta gutxitan izan baitute. Bidenabar, denbora ez da gainditu beharreko arazo bakarra izan. Patrizia Eneritz izan ezik, gainontzeko antzezte guztiak estreinakoz aritu dira aurten eszenatoki baten gainean, «eta hori asko nabaritzen da lan egiteko orduan, askoz lasaiago aritzen baitzara esperientzia baldin baduzu», Piñuelaren irudikoz.

Koxka horiek eta beste hainbat gainditu ahal izateko gogor egin dute lan azken zazpi hilabeteotan. «Antzerkia euskaraz egin, bizi eta prestatu dugu». Neke eta izerdi horien fruitua joan den ostiralean izan zen ikusgai jendarean estreinakoz Irubide institutuan bertan. Lagunartean, kasik etxean, emaitza «espero baino hobea» izan zen, Piñuelaren esanetan. Taldeak, ordea, asteburu honetan erronka zailago bati egin beharko dio aurre. Heldu den igandean, hilak zortzi, eguerdiko hamabietan, Nafarroako Antzerki Eskolaren San Agustin kaleko aretoan taularatuko dute euren obra.

Xedeak argi eta garbi

J.K.L. / IRUNEA

■ Karlos Piñuela eta Iñaki Otsoak 1990-91 ikasturtean hartu zuten Padre Moret-Irubide institutuko antzerki taldearen gidaritza. Garai hartan antzerki taldea desagertzeaz zegoen. German Gonzalez eta Vicente Galvete institutuko irakasleak ziren taldearen zuzendariak. Irakas-kuntzak eta antzerki taldeak ematen zieten lana aurrera atera ezinik, irakasleek amore eman zuten ikasturte horretan.

Otsoa eta Piñuela Irubide institutuan ikasle zirelarik eduki zuten antzerkigintzarekin lehen harremanak. Bertako antzerki taldeko partaide izan ziren, eta haren eskutik, hainbat ikastaro egin zituzten Nafarroako zenbait antzerki talde profesionalekin. Institututik irten eta gero, besteak beste, Udako Euskal Unibertsitatean eta Nafarroako Antzerki Eskolan ikastaroak egin zituzten. Iñaki Otsoak, horretaz landa, TEN taldearekin antzezte gisa lan egin zuen 'La dama y el mar' muntaian. Azken urteotan, gainera, Tarregan izan dira, bertan urtero egiten diren kale antzerki

topaketetan. Eduki badaukate, beraz, formakuntza zabal samarra, eta jakin badakite zertarako balio behar duen institutu bateko antzerki taldeak, Piñuelak argi eta garbi azaldu zuenaren arabera. «Gure asmoa ez da antzezte harrobi bat izatea, edo hori ez da behintzat gure xede nagusia. Helburua jendeak antzerkia ezagutzea da. Hor publiko bat sortzen ari gara, gerora begira jende hori antzerkia ikustera joanen da eta. Bidenabar baten batek antzerkigintzan lan egitea lortzen badu, primeran».

Asko ez badira ere, egon badaude lorpen hori gauzatu duten batzuk. «Esaterako, duela aste-bete Arantxa Aranguren Gaia-rreren izan zen Miguel Narrosen zuzendaritzapean obra bat antzezten. Neska hori Irubideko antzerki taldeko partaidea izan zen duela 11 urte». Halaber, euren lanak Nafarroako antzerki mundua euskalduntzen lagun dezakeela uste dute. «Gurea bezalako taldeetan antzerkia euskaraz egiteko gai den jendea hezteko gai baldin bagara, antzerki talde euskaldunak sortuko dira aurki». Hala bedi!

«Euskal kultura ez da jada oztopo»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

Txomin Hegik eta Daniel Landartek mintzaldia eskaini zuten joan den asteartean Iruñeko Hizkuntz Eskolan, 'Euskara eta euskal kultura Ipar Euskal Herrian' gaiaren inguruan. Bertan, erakundeak sortu aurretik eta ondorengo ibilbidea eta betekizuna azpimarratu zuen Hegik.

EGUNKARIA.— Hiru urte hauetan arazo eta eztabaida luze eta gogorak izan dira. Egin den bidea behar bezalako izan da?

TXOMIN HEGI.— Oro har, Kultur Erakundea oraino ume txiki bat da. Oso garrantzitsua izan da Iparraldean topagune bat sortzea euskal kultur munduan, eta esan daiteke oro har udalen eta botere publikoen artean halako elkarrizketagune bat izan dela. Eta dudarik gabe, mementuan behintzat, atea ez da itxita, eta nahiz eta eztabaidak oso zailak eta dorpeak izan diren —normala den bezala, kultur munduan ez bada eztabaidagune bat nik ez dakit non izango den—, Iparraldean lehen aldiz sortu da euskal kultur munduaren eta erabakitzaileen artean topagune hori. Eta uste dut bere funtzioa osoki bete duela orain arte.

EGUNKARIA.— Aldaketa hori ere sumatu da Frantziako Administrazioaren aldetik? Hor egon baitaitezke arazorik handienak...

HEGI.— Bai eta ez. Behar da lehen gauza azpimarratu hala ere, gure afera honetan frantses administrakuntza bultzatzailea izan da. Behar da ikusi gaur egun Iparraldean kultur lan bat egiten dela orokorki, gehienbat lan hori frantses kulturari edo beste munduko kulturari dedikatzen dena, baina Iparraldeko udalek dute kultur lan hori orokorki gehienik diruztatzen. Frantses Administrakuntza edo Akitaniako Departamendua baino gehiago. Dirutza inportante horretan euskal kulturak % 13-14 dauka. Beraz, nik uste dut, Iparraldeko udal txekak pixkanaka komenzitzen ari direla eta baikorrago ikusten gaituztela eta ikusten

dutela euskal kulturaren garrantzia, eta hori lanari esker egiten ari den gauza bat da. Bainan—eta dudarik gabe arazo politikoengatik— frantses Kultur Ministerioak ukan zuen duela hiru urte horrelako erabaki bultzatzaile bat: 'Gutxienez kulturzaleekin Iparraldean konponketa zerbait egin behar da, eta beraz proiektu hori bultzatu dugu'.

EGUNKARIA.— Aldaketarik sumatu al duzue gobernu aldaketarekin? Zerbaitetan laguntzen al du hiru ministro izateak?


HEGI.— Elez bai, zeren esaten digute oso lan ona egiten dugula eta euskara behar dela sustengatu. Hori guztia esaten dute, ahobeteka, Iparraldean direlarik behintzat. Mementuan nabari dena da euskal kultur erakundeak sustengatzeko osatu den sindikata azkartzen ari dela. Hori da inportanteena. Bestela, ez du ematen kultur arazoei begiratuz aldakuntza handirik dagoenik. Ikusiko da ondoren Seaskare-

kin zer gertatzen den, baina hori guztia frogatu egin behar da.

EGUNKARIA.— Non dira behar handienak: Lapurdin, Nafarroa Beherean, Zuberoan?

HEGI.— Ez dezagun ahaztu arazo larriena euskararena dela. Eta arazo hori ez da larriegia kostaldean Zuberoari edo Baxenafarroari konparatuz. Berrikitan Mikel Erramuzpek esan du Alduden gaur egun hurrek ez dutela euskaraz egiten. Alduden ez baldin badute euskaraz egiten, non egiten dute, ba? Hala ere, Kopurua zabalduz eta emendatuz ari da, baina arazoa hain da larria!

«Ez duzue pentsatzen ahal zer aldakuntza izan den jendearengan, bai pertsonalki bai kolektiboki».



Txomin Hegi.

LEIRE ARZUAGA

Gaur egun 5.000 ume gazte eta baditugu euskarazko erakuntzan, eta hori izugarria da konparatzen baldin badira zenbaki horiek duela hamar urteko egoerarekin, baina ez dugu horrela euskararen arazoa konponduko Iparraldean. Beste arazo nagusia da desoreka ikaragarri hori hirigunearen eta baserri munduaren artean. Hori ez da bakarrik Iparraldearen arazoa, Europaren arazoa dela esan daiteke, baina esaten da nolazbait Iparraldean laborategi txiki batean gaudela. Nabari da hemen bizi ditugula bai demografiaren aldetik, bai ekonomia edo kulturaren aldetik, beste hainbat tokitan bizi diren desoreka ikaragarri horiek. Hori da geroari begira dugun arazo nagusienetako bat: oreka berriak pentsatzea eta asmatzea.

EGUNKARIA.— Datuak ere ez dira oso onak. Beti aipatzen da Iparraldeko euskal kulturaren beherakada. Buelta ematen ahal zaio horri? Jendea baikor da?

HEGI.— Bai. Nik uste dut psikologiaren aldetik izugarriko aldaketa izan dela. Behar da jakin gaur aipatu ditugun gauza guztiak azken bost urteetan plantatuak izan direla. Erran nahi baita ume txiki-txiki bat garela. Baina ez duzue, Hegoaldetik ikusita, pentsatzen ahal zer aldakuntza izan den jendearengan, bai pertsonalki bai kolektiboki. Ikustea euskal kultura ez dela joan den mendeko gauza zaharkituta, zoko baten egiten dena, ez eta, labur biltzeko, terrorista afera bat. Oro har, mende honen bukaeran diren arazo larriak kontuan hartuz —identifikazioa, nortasuna, hegoen berriz aurkitzea, hirigunearen arazo larria—, hori ez badugu ikusten kultura arazoa, ardatza, ez dakit nola eraikiko dugun datoren mendea. Eta gaur egun, jendearen aldaketa horrekin, ikusten da euskal kultura Iparraldean, gaur egun, gauza eraginkorra eta baikorra izan daitekeela geroari buruz. Ez oztopo bat, baina alderantziz. Beraz, hizkuntzaren nahikeria hori zabaltzen ari da.

Txomin Hegi

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAREN ZUZENDARIA



SOSLATA

Bitartekaritza lana

Euskal Kultur Erakundea 1990ean sortu zenean, ate berriak zabaltzen ziren Ipar Euskal Herriko euskal kulturaren ikuspegitik. Kultur elkarten eta administrazioaren arteko akordiotik sortua, Pizkundek izan zuen lekukoa hartzeko eratu zen. Uztaritzen finkatuta, Txomin Hegi du zuzendari, eta urte hauetan egindako bitartekaritza lana oso garrantzitsua izan da bertako hainbat arazo konpondu eta bideratzeko. Horren ondorioz, euskal kulturaren konfiantza berreskuratzen ari dela dio Hegik, bertako herritarren artean izan den aldaketa psikologikoari esker.

NISKIJATOR

«...» ez dakike gobernatzen (Machiavelo)

© Zaldi Eroak

